

“Zubietako Lanbide Heziketako eskola: berrikuntza, sariak eta euskara”



“ Multienergia Galdera Gela Helburu Didaktiko eta Funtzionalekin” proiektuagatik [estatu mailako berrikuntza saria jaso du.](#)

Horretaz gain, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Lanbide Heziketako sailburuordetzaren partetik [“2014 LHeuskadi” saria eman zion](#), urte hauetan guztietan Euskal Herriko Lanbide Heziketaren alde erakutsitako lanagatik, konpromisoagatik eta laguntzagatik.

Euskararen erabilera areagotzeko ere lanean ari dira Zubietako eskolan eta urtero garatzen dute euren normalizazio plangintza. Aurtun, [Euskararen Nazioarteko Egunean ekintza ugari egin dituzte](#): lehiaketako sari banaketa, hamaiketako, musika...eta baita ikasleak lantokiko prestakuntza (praktikak) euskaraz egitera bultzatzeko motibazio hitzaldia ere.

Aktibo izan nahi?



Usurbilgo [Aizpurua autobusak](#) enpresak euren autobusetan bidaiatzen duten haurrentzat joko bat antolatu zuen Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta abenduaren 3an. Autobus bat margotu behar zuten haurrek jokoan parte hartzeko eta ondoren sare sozialean bidez zabaldu zituzten jasotako lanak.

hobelex

xuxen
elhuyar da

[Hobelex](#) eta [Xuxen](#) Microsoft Office-erako zuzentzaileak dira, euskaraz akats ortografikorik gabe eta, gainera, lexiko zuzen eta eguneratuarekin idazten laguntzen duten tresnak.

Xuxen eta Hobelex internetetik deskarga daitezke doan zuen ordenagailuetan instalatzeko eta on-line kontsultak egiteko aukera ere ematen dute, ordenagailuan instalatu beharrik gabe ([Xuxen](#) eta [Hobelex](#))